

1975-XI-30

BATZAR IREKIA LEMOAN J. B. EGUZKITZAREN OMENEZ

Batzar agiria

Lemoan (Bizkaia), 1975eko azaroaren 30ean, Herri-mezaren ondotik, elizondoan J. B. Eguzkitza euskaltzain zenaren gorazarrezko oroitarria agertzea egin da. Eguerdiko hamabietan herriko eskoletan bildu dira, mahainburu: Augusto Unzeta, Bizkaiko Diputazioko buruordezko jauna; Amorrortu, diputadu jauna; Manzano, Gipuzkoako diputadu jauna; Llona, Lemoako alkate jauna; Villasante, euskaltzainburu jauna; Haritschelhar, buruordezko jauna; E. Erkiaga, A. Irigoien eta P. Lafitte, euskaltzain jaunak; G. Manterola eta J. B. Merino Urrutia, ohorezko euskaltzain jaunak; L. Akesolo, N. Alzola, J. M. Aranalde, J. A. Arkotxa, F. Artola, M. Atxaga, J. M. Etxaburu, J. A. Etxebarria, K. Etxenagusia, J. Garmendia Kortadi, X. Gereño, X. Kintana, E. Knörr, J. L. Lizundia, S. Onaindia, J. A. Retolaza, P. Uribarren, J. Zaitegi eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela, eta herria.

Arrue, Dassance, Davant, Diharce, Larre eta Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Augusto Unzeta Diputazioko buruordezkoak agurrezko hitzez ireki du batzarra.

L. Villasante euskaltzainburu jaunak, euskaraz eta gazte-leraz, gaurko batzar irekira zerk ekarri gaituan, Juan Bautista Eguzkitza lehen euskaltzainetakoa eta Lemoako seme zenaren ehungarren urteburua bide. Biltzartuak agurtuaz, Eguzkitza zenari buruz mintzatuko diren hizlariak aurkezten ditu.

Eusebio Erkiaga euskaltzain jaunak, J. B. Eguzkitzaren bizitza eta idazhizkuntzaz mintzatu da. Bereziki bere hizlaxo joriaz, idatzi zituen liburuez eta EUSKERA aldizkarian egin zituen lanez. Eguzkitzaren apaltasuna, zintzotasuna eta lan-giletasuna adiarazi ditu bereziki.

Aita Santi Onaindia euskaltzain laguntzaile jaunak, J. B. Eguzkitzaren eliz-idazlanak agerrarazi ditu, euskaldun

eliz-gizon zen aldetik bere egitekoa hain bikain bete zuenez, elizliburu, sermoilari eta aldizkarietako lanetan zuen nortasuna kontatuaz.

Ondorean, ehun eta hirurogeta lauri euskal irakasle titulu agiriak ematea. Laugarren emanaldi honi buruz euskaltzainburuak agertu ditu aurkezpenezko hitz batzuk, Euskaltzaindiak bere sorreratik, arautegian duen bete behar honi buruz.

Titulu agiriak banatu ondorean, J. Haritschelhar buruordezkoak agurrezko hitz batzuk esan ditu, Euskaltzaindiaren izenean batzarkide guzientzat.

Lemoako alkate jaunak ere agurrezko hitzak esan ditu eta batzarra amaitzeko Augusto Unzeta jaunak euskarari laguntza eskainizko hitzak esan ditu.

Batzarra bukatzean anaitasunezko bazkaria egin da.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-XII-21

BATZAR IREKIA DONIBANE-GARAZIN J. BARBIERREN OMENEZ

Batzar agiria

Donibane-Garazin (Baxe-Nabarre), 1975eko abenduaren 21ean, Hermezaren ondotik, eguerdiko hamabiak laurden gutiagotan, Herriko Etxean bildu dira: Garaziko hauzapeza, L. Villasante euskaltzainburua, J. Haritschelhar buruordezkoa, L. Dassance, J. L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen eta P. Lafitte jaun euskaltzainak; L. Akesolo, G. Alfaro (Lantziri), J. L. Alvarez Enparantza, J. Alliéres, P. Andiazabal, M. Atxaga, J. Berrojalbiz, J. Camino, P. Duny Petré, J. Etcheberry, J. Hiriart-Urruty, M. Itçaina, X. Kintana, M. Labeguerie, J. L. Lizundia, S. Onaindia, E. Salaberry eta J. J. Zearreta laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

A. Arrue eta P. Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.